



## **UDAL BATZAR ARRUNTA**

### **2015eko urriaren 29a**

LEKUA: Udaletxeko Batzar Aretoa.

BERTARATUTAKO HAUTATUAK:

Ioritz Imaz Baztarrika jn.

Montserrat Delgado Aguirre and.

Erkuden Murua Uribe-Etxebarria and.

Rufino Insausti Eciolaza jn.

Aitzol Mendizabal Malkorra jn.

Aloña Barandiaran Munduate and.

Aritz Ugarte Munduate jn.

Igor Ariztimuño Iparraguirre jn.

Etorri ez direnak: Aratz Urkia Telleria jn.

Andoni Gomez Aldanondo jn.

Argoitz Urrestaratzu Lazkano jn.

IDAZKARIA: Aitor Iñarra González Jn.

BATZARRA: Arrunta. DEIALDIA: Lehenengoa.

ORDUA: Hasiera: Arratsaldeko 18:30etan. Amaiera:

### **GAI-ZERRENDA**

- 1.- Azken Batzarreko agiriaren onespena: 2015-10-15koa**
- 2.- Alkatetzako Dekretu eta Erabakien berri ematea: 270-286.**
- 3.- 2016. urterako tasak eta zergak onartzea.**
- 4.- Zabor bilketa sistema berriaren onarpen proposamena.**
- 5.- Galdera eta eskaerak.**



## **GAIAK**

### **1.- Azken Batzarreko agiriaren onspena: 2015-10-15koa**

Agiria irakurri eta aho-batez onartutzat ematen da.

### **2.- Alkatetzako Dekretu eta Erabakien berri ematea.**

Azken udalbatzatik hona emandako Alkatetza Ebazpenen zerrenda zinegotzi guztiei banatuak daudelarik (270-286 zenbakidunak), Udalbatza Osoko zinegotziak ebazpen hauen jakinaren gainean geratzen dira.

### **3.- 2016. urterako tasak eta zergak onartzea.**

Udalerriko kudeatzaileen asmoa Udal Aurrekontuko sarrerak arrazionalizatu eta gehitzea da, Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak eta gauzatzen dituen jarduera publikoak finantzatu eta behar den neurrian horien kalitatea hobetzeko xedez; guzti hori, ahal izanez gero, antzeko ezaugarriak dituzten Udalerrietako zerga sistema uniformearen barnean.

Helburu hauen markoan, Haziendako Batzordeak Udal zerga sistema osatzen duten figura desberdinak azertu ditu indarreko Foru Arauek ezarritakoari egokituz.

Ordenantza Fiskalen Eranskinen kuota, indize eta tarifak, 2016. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honela finkatuta gelditzen dira:

#### **Ondasun Higiezinaren gaineko zerga.**

Aho-batez ez da aldaketarik ezartzen.

#### **Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.**

Aho-batez ez da aldaketarik ezartzen.



**Trakzio mekanikoko Ibilgailuen gaineko zerga.**

Honako aldaketa eranstean da zerga arautzen duen ordenantzari:

Art. 2. HOBARIAK, puntu 2 a) letra, bigarren paragrafoa honako idazkera izango du:

25 urtetik gorako antzinasuneko exentzioa interesatuak eskatuta aplikatuko da, eta bere efektuak eskaera urtetik zenbatuko dira.

**Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga.**

Aho-batez ez da aldaketarik ezartzen.

**Hiri-lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga.**

Ez da aldaketarik ezartzen.

**Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza.**

Honako aldaketa eranstean zaio tasa arautzen duen ordenantzari:

Art. 10, bigarren paragrafo hau eranstean zaio:

Udalak eskatu ahalko die enpresa hornitzaileei, edo erabiltzaileei oro har, beraiek autolikidazioa egin dezaten eta udalaren kontuan ingresatu dezaten. Hori egiteaz gain, dagokion unetan fakturazioaren informazio eta egindako diru-sarreraren informazioa udalari bidali beharko diote.

Horretaz gain ez da aldaketarik ezartzen.

**Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen Ordenantza Arautzailea.**

\* Tasa mota hauetarako Udalak onartu ahalko du Gizarte Zerbitzuetatik sarrera ekonomiko baxuko familientzako dirulaguntzak edo kontribuzioak aipatu gastuak ordaintzen laguntzeko.



---

**1. INTERESATUEK HORRELA ESKATURIK, UDAL ADMINISTRAZIOAK EDO UDAL AGINTARIEK EMAN EDO AZTERTUKO DITUZTEN DOKUMENTU-EGATIKO TASA.**

Ez da aldatzen.

	Euroak
- Fotokopiak	0.25

**2. AUTOTAXI ETA GAINERAKO AUKERAKO IBILGAILUEN LIZENTZIA ETA BAIMEN ADMINISTRATIBOAK EMATEAGATIKO TASA.**

Ez da aldatzen.

Autotaxi eta gainerako aukerako ibilgailuen lizentzi eta baimen administratiboak emateagatiko tasa: 100 Euro.

**3. ESTABLEZIMENDUEN IREKITZE-LIZENTZIAK ETA JARDUERA ESPEDIENTEEN IZAPIDETZE TASA.**

Ez da aldatzen.

- Espediente arruntak: 1.200,- euro.
- Sabuetsitakoak: 500,- euro.

**4. UDAL HILERRIAN ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASA.**

Ez da aldatzen.

	Euroak
- Idiazabalen bizi edo erroldatuentzat	200
- Besteetan bizi diren herritarrentzat	320
- Panteoi pribatu eta lurperatzeak	320



---

- Ursuaranen lurperatzea	120
- Gorpuzkietako nitxoak	200

Nitxoen emakida 10 urtekoa da.

Gorpuzkietako nitxoena: 10 urte.

## **5. ZABOR ETA HIRI HONDAKIN SOLIDOAK BILTZEAGATIKO TASA.**

Aurtengo urtea berezia dela azaltzen da Sasieta Mankomunitatetik igoera handia erabaki baita. Hori dela eta %60ko igoera aplikatu beharko zaie aurreko urteko tasei.

Gaia azterturik aho-batez honako tasa berriak onartzen dira:

	Euroak
- Etxebizitza bakoitzagatik	139
- Etxebizitza "Diseminado rural"ekoa	112
- Etxebizitza konpostagailua dutenak:	126
- Etxegarateko jatetxeak	862
- Hirigunean kokaturiko jatetxeak, eta Elkarte guztiak	490
- Taberna eta janari dendak	290
- Bestelako denda eta komertzioak	144
- Autonomoak eta langile bakarreko enpresak	144
- Tailer eta industriak: 100 langile azpitik	570
- Tailer eta industriak: 100 langile baino gehiago	1.710

## **6. IGARONDO IGERITEGIRAKO SARRERAK.**

Gaia azterturik aho-batez honako erredakzioa onartzen da.

	Euroak
a) Sarrera arrunta:	
- Langabetuak, txartela aurkeztuz, Ikasle txartela dutenak, eta Pentsiodunak	2.25
- 3tik 14 urte bitartekoak	2.25
- 15 urtetik aurrekoak	4.50
b) Banaka eta aldiko txartelak:	



---

- Langabetuak, txartela aurkeztuz, Ikasle txartela dutenak, eta Pentsiodunak	28.00
- 3tik 14 urte bitartekoak	28.00
- 15 urtetik aurrekoak	43.00

c) Familia aldiko txartelak:

- Ezkontideak + seme-alaba 1	62.00
- Ezkontideak + seme-alaba 2 edo gehiago	68.00

Famili bono hauei dagokienean, ikasleak diren seme-alabak soilik hartzen dira kontutan.

d) Dohainik izango dute:

- Hiru urte arteko haurrak.

**7. IGARONDO FRONTOIAREN ERABILPENA.**

Ez da aldatzen.

	Euroak
1.- Frontoiaren erabilpena, orduko argia eta dutxa barne	12
2.- Frontoiaren erabilpena astean ordubete irailetik irailera	320
3.- Futbito pista argiteriarekin, orduko	15

**8. ZELAAKO KIROLDEGIAREN ETA SOINKETA GELAREN ERABILPENA.**

Gaia azterturik aho-batez honako tasak onartzen dira.

**Kiroldegikoa:**

- Rokodromorako sarrera	5,-
- Urteko pasea	30,-
- Seihilabeteko pasea	20,-
- Hiruhilabeteko pasea	10,-
- Kantxaren alokamendua (ordu bat)	40,-



---

- Kantxaren alokamendua hiruhilabeteko 250,-

**Soinketa gela:**

Gaia azterturik aho-batez honako tasak onartzen dira.

- Urte osoko bonoa: 100,- €

Familia ugariko txartelarekin: 91,- €

Ikasleak (ikasle-txartela) edo langabetuak (langabetu txartela) eta  
Pentsiodunak: 81 €

- Sei hilabeteko bonoa: 70,- €

Familia ugariko txartelarekin: 64,- €

Ikasleak (ikasle-txartela) edo langabetuak (langabetu txartela) eta  
Pentsiodunak: 58 €

- Hiruhilabete naturalekoa: 50,- €

Familia ugariko txartelarekin: 46,- €

Ikasleak (ikasle-txartela) edo langabetuak (langabetu txartela) eta  
Pentsiodunak: 42 €

Giltza: 5,- € (depositua)

**9. UDAL MATERIALEN ALOKAMENDUA.**

Ez da aldaketarik ematen

Materiala	Euro/Erabilera
Hesiak	12.00
Mahaiak	18.00



---

Aulkiak	2.00
Standak	30.00

Erabilera: 3 egun.

#### **10. BERE NAIAKO APARKALEKUA AUTOKARABANANTZAT.**

Ez da aldaketarik ematen

Urtea osoan aparkatzeko eskubidea: 42,- €. karabanako.

Telemandoa: 32,- €.

Giltza-txartela: 5,- €. (depositua)

#### **4.- Zabor bilketa sistema berriaren onarpen proposamena.**

Alkate jaunak Sasieta Mankomunitatetik proposatutako zabor bilketa sistema berriaren berri ematen du.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho-batez honakoa

ERABAKITZEN DU

Bakarra.

Zabor bilketa sistema berria onartzea (Eranskina).

#### **5.- Galdera eta eskaerak.**

Ez daude.

Eta beste gairik ez dagoenez Batzarra bukatutzat ematen da gaueko 18:50ak direnean.





**ERANSKINA**

# Idiazabalen HONDAKINEN BILKETA BERRIA



Hondakinen bilketa egiteko **modu berri bat** dator Idiazabalera. Birziklapenean oinarritzen den sistema eta aldi berean betiko erosotasuna mantentzen duena.



Aldaketa hau herrigunean egingo da. Baserritarrek orain arte bezala "birziklaguneak" erabiliko dituzte.

- 1 Zaborra botatzeko edukiontzia (**berdea**) kendu egingo da.
- 2 Bere ordez **edukiontzi grisak** jarriko dira sarraila elektronikoen eta **txartela** beharko da zabalteko.
- 3 Edukiontzi berri hauek astean behin bakarrik zabalduko dira: **ASTEAZKENEAN**, egun osoa. Beste egunetan tapa ezingo da zabaldu.
- 4 Edukiontzi honetara **ERREFUSA BAKARRIK** bota daiteke, birziklatu ezin dena.
- 5 **Pixoihalentzat edukiontzi berezi** batzuk ere jarriko dira. Hauek erabili ahal izateko txartela eskatzerakoan esan beharko da.
- 6 Beste edukiontzi guztiak, birziklagarriak diren hondakinak botatzeko, mantendu egingo dira.
- 7 Traste zaharren zerbitzua orain arte bezala mantenduko da. Hileko 2. eta 4. astelehenetan da bilketa. Bezperan iluntzean atera, alde zurretik Sasietara deituz: 943 16 15 55.
- 8 Komertzioei bisita egingo zaie, aldaketa zertan datzan argitzeko eta beharrezkoa duten materiala emateko.




**i** Edukiontzi grisa erabili ahal izateko **TXARTELA** beharko duzu. Horretarako gerturatu zaitez ordutegi honetan udaletxera:

AZAROA	astelehena 9	asteartea 10	asteazkena 11	osteguna 12	ostirala 13
9:00 - 14:00	Udaletxean	Udaletxean	Udaletxean	Udaletxean	Udaletxean
16:00 - 19:00		Udaletxean		Udaletxean	

**Organikoa** orain arte ez baduzu bereiztu, hori egiteko materiala ere emango zaizu.

**Txartelak gainera beste erabilpen hauek ere izango ditu:**

- Udaletxe azpian dagoen makinan **poltsa konpostagarriak** ateratzeko.
- Esan bezala, astean behin **edukiontzi grisa** zabalteko.
- Behar duenak, **pixoihalen edukiontzia** zabalteko.



**Adi! Orain poltsak ateratzeko txartela dutenek ere udaletxetik pasa beharko dute txartel hau berritzeko. Ekarki zurekin etortzen zarenean.**



**IDIAZABALGO UDALA**



**SASIETA**  
MANKOMUNITATEA

☎ 943 16 15 55